



ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

ZERAIN

ELIZATZE AUZOKO ALOKAIRU SOZIALEKO ETXEBIZITZAK



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



ZERAINGO UDALA

2018ko maiatzaren 29a

1. Atarikoak.....	2
2. Ebaluazio Prozesua.....	3
Metodologia.....	3
Prozesua.....	5
3. Proiektua.....	8
4. Testuingurua.....	9
Datu demografikoak.....	9
Datu sozioekonomikoak.....	10
Datu soziolinguistikoak.....	10
Hezkuntza.....	11
Ekipamenduak.....	11
5. Eragin linguistikoaren ebaluazioa.....	12
Galdetegi laburra.....	13
Bilakaera indizea.....	15
Eragin linguistikoaren galdetegia.....	16
Funtsezko alderdien galdetegia.....	21
6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak.....	27

1. ATARIKOA

Lan honen helburua da Zeraingo Elizatze auzoan 2019ko maiatzerako egingo diren zortzi etxebizitza berrik izan dezaketen eragin linguistikoa ebaluatzea.

Zerain Gipuzkoako udalerrri bat da, Goierrri eskualdekoa. 10,37 km² ditu, eta 257 biztanle zituen 2018. urtean. Segura, Mutiloa, Zegama eta Legazpi udalerriak ditu inguruan, eta Aizkorri mendiaren magalean dago. Herritarren %93 euskalduna da Zerainen¹, eta %81,2koa da euskararen kaleko erabilera². Zerain beti izan da udalerrri euskalduna; izan ere, %97,7 ziren euskaldunak 1991n. Beraz, ondo heldu zaio euskarari urtez urte.

Herri bizia da Zerain, eta udalerrri txikia izan arren, herritarrek ohitura dute bizitza bertan egiteko, ahal duten neurrian. Dena den, Segurara ere asko joaten dira, eta autobusa dute horretarako. Bestalde, eskolaren arabera, Lazkaora edo Beasainera joateko ohitura izaten dute gazteek. Erosketak egiteko, Segura, Beasain edo Ormaiztegiara joaten dira herritarrek. Osasun zerbitzu batzuk Beasainen eta Seguran jasotzen dituzte.

Turismoari dagokionez, gorantz doa bisitari kopurua. 2016an, 15.000 bisitari jaso zituen Zerainek, eta bisita gidatuak egiten dituzte hainbat hizkuntzatan, eskaeraren arabera. Ondare kulturalari erreparatzen diote turismo eskaintzan.

Hizkuntza batek, biziko bada, bera nagusi den lur eremuak behar ditu, arnasmonek behar ditu bere funtzio guztiak mugarik gabe, askatasunez, bete eta garatu ahal izateko. Horrenbestez, Zeraingo euskararen egoera bere horretan mantentzeak duen garrantzia kontutan hartuta, egitasmo honen helburua da eraiki nahi diren etxebizitza berriek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea. Horrez gain, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurea hartzeko neurriak hartzea ere bai.

1

EUSTAT, 2016.

² Soziolinguistika Klusterra, 2016.

2. EBALUAZIO PROZESUA

2.1. METODOLOGIA

Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko hasierako tresna GFA eta UEMAk elkarlanean sortu zuten, tresna hura garatu egin du UEMAK eta lan horren emaitza da egitasmo honetan jasotakoa. Hau da Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egiteko jarraitu den metodologia.

I. EGITASMOA ETA GARATUKO DEN TOKIAREN TESTUINGURUA AZTERTU

Eragin linguistikoaren balorazioak jaso aurretik, eragin eremuari dagokion informazio garrantzitsua aztertu da. Prozesu horretan, kontuan hartzekoak diren datuak honakoak izan dira: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak.

II. GALDETEGI LABURRA ERANTZUN

Edozein proiektuk edo egitasmok udalerrri bateko egoera soziolinguistikoan eragingo duen edo ez ondorioztatzeko balio duen galdetegia da. Galdetegi sinplea da, galderei BAI edo EZ erantzuna eskatzen duena

Aldaketa lau faktore nagusik eragingo dute: biztanle kopurua ugaritzeak edo bisitari/erabiltzaile/langile kopurua ugaritzeak, hizkuntza politika aldatzeak edota tokiko harreman sareak aldatzeak.

III. ERAGIN LINGUISTIKOAREN INDIZEA KALKULATZEA

Biztanleriaren kopurua aldatuko delako bete da urrats hau. Horretarako Hauskortasun indizea eta Euskararen Proiekzio indizea ere kalkulatu dira.

IV. ERAGIN LINGUISTIKOAREN GALDETEGIA BETE

Galdetegi honek eragin linguistikoak identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago

batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten laguntzen du.

Galdetegi honen helburua eragin linguistikoaren nolakotasuna aztertzea eta eragina jasan dezaketen alderdiak identifikatzea da.

Hizkuntzari estu lotutako aldagaien hauen inguruan galdetu da:

- Komunitatearen kutur eta gizarte bizitzan.
- Biztanleriaren/bisitarien euskararen ezagutzan.
- Biztanleen/bisitarien euskararen erabileran.
- Jardueren/zerbitzuen komunikazioan.
- Eragin eremuaren hizkuntza-paisaian.
- Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan – erabileran.

V. FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO GALDETEGIA BETETZEA

Edozein proiektu edota jarduerak jaso beharreko funtsezko alderdiak biltzen dituen galdetegia da. Galdetegiaren bidez, ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatu da. Horri esker, neurrien zerrenda egin ahal izan da, bukaerako txostenean kontuan har daitezten.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatuta daude:

1. - **Proiektuaren/jardueraren izaerari lotutakoak:** etxebizitzaren tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa eredua eta gararen sozioekonomiko zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak al diren aztertu nahi du funtsezko alderdi honek.
2. - **Proiektuaren/jardueraren dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak:** proiektuak ekarriko duen hazkundea, berau garatzeko behar den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak al diren jasotzen du.
3. - **Proiektuaren/jardueraren lekukotzeari lotutakoak:** proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertu nahi da alderdi honetan.

4. - **Proiektua/jarduera garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak:** proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoa, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezarri al diren jaso nahi da.
5. - **Proiektuaren/jardueraren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak):** garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako jarduera edo proiektu osagarriak aurreikusi al diren aztertu nahi da.
6. **Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari** lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude:

1. Etxebizitza
2. Jarduera ekonomikoa, enplegua
3. Ekipamenduak
4. Espazio libreak
5. Jarduera soziokulturala.

VI. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena eginda, zein funtsezko alderdiei buruzko azterketa eginda, azaldu diren eragin posible horiei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko puntua da honakoa.

2.2. PROZESUA

Ebaluazio prozesuan honako pertsonak hartu dute parte:

- Goizane Arana Arexolaleiba, UEMako teknikaria eta ELEN aditua.
- Eneritz Albizu Lizaso, UEMako teknikaria, Goierriko arduraduna.
- Amaia Junquera, Zeraingo Udaleko Hirigintza zinegotzia.
- XXXXXXXXXXXX, udal arkitektoa.

Ebaluazio prozesuak hiru fase izan ditu:

- Aurrelanak
- Ebaluazio taldea
- Txostena

1. AURRELANAK

Lehenengo fasean honakoak izan dira zereginak: proiektuaren inguruko eta Zeraingo informazioa eskuratzea. Oinarrizko datu bilketa, zeharkako iturrietatik datu bilketa, dokumentuak eta estatistikak.

Iturri hauek erabili dira: Eustat, INE, Euskal Herriko Adierazle Linguistikoen Sistemaren Informazioa (EAS), UEMA (Azterketa Sozioekonomikoa eta Soziolinguistikoa) eta Zeraingo Udaleko datuak.

Datu horietatik erauzitakoekin osatu du Talde Teknikoak Hauskortasun indizea, Euskararen Proiekzio indizea eta Eragin Linguistikoaren indizea.

2. BALORAZIO BATZORDEA

Aldez aurretik aipatutako indizeen emaitzak eta datuak kontuan hartuta, Balorazio Batzordea arduratu da Eragin Linguistikoaren Ebaluazio galdetegiak bete eta puntuazioa ezartzeaz.

1. bilera: ebaluazioa eta neurri zuzentzaileak

Parte hartzaileak:

UEMAko teknikariak eta udal gobernua.

Egitekoak:

ELERen azalpena eman.

Prozedura zehaztu.

2. bilera: Ebaluazioa eta neurri zuzentzaileak

Parte hartzaileak:

Balorazio batzordea.

Egitekoak:

Datuen azterketa eta diagnostikoa partekatu.

Egoera eta izan dezakeen eraginaz hitz egin.

3. TXOSTENA

Txostenaren erredakzioa UEMAko talde teknikoak egin du, eta Balorazio Batzordearekin partekatu da

3. PROIEKTUA

Aztertu den proiektua 2018-2019 bitartean eraikiko diren etxebizitza plana izan da. Alokairu sozialeko zortzi etxebizitza eraikiko dituzte, logela batekoak eta bikoak. Haien prezioa 96 eta 250 euro artekoa da, hilean. Etxebizitza bakoitzean bi lagun bizitzea aurreikusten dute, eta 34 urte arteko gazteentzat zein 70 urtetik gorako helduentzat da eskaintza. 360 m² eta 590 m²koak izango dira etxebizitzak, eta bost urteko epean bizi ahal izango dute etxebizitza horietan maizterrek. Plazatik gertu daude, herriaren erdigunean kokatuta eta oinezko sareekin komunikatuta.

4. TESTUINGURUA

Zati honetan bildu dira Zeraingo herriarren eta bertako bizilagunen datu estatistikoak. Lagungarriak izango dira udalerria ezagutzeko eta migrazio zein ohitura joerak identifikatzeko.

4.1. DEMOGRAFIA

POPULAZIOAREN BILAKAERA

Guztira	Zerain
240	1981
233	1986
227	1991
223	1996
247	2001
244	2006
263	2011

248

2016

Iturria: Eustat

AZKEN 5 URTEOTAKO MIGRAZIO MUGIMENDUAK

	2012	2013	2014	2015	2016
Immigrazioa	2	2	-	-	-
Emigrazioa	3	-	-	-	4
Helburuko barne-migrazioa	6	7	7	8	2
Jatorrizko barne-migrazioa	5	7	13	10	2

4.2. BIZTANLERIA JAIOLEKUAREN ARABERA

	2018
Biztanleria guztira	257
Biztanleria egoiliarra, jaiolekuaren arabera, Euskal AE	241
Araba	0
Bizkaia	2
Gipuzkoa	239
Horietatik, Goierrikoak	196
Horietatik, Zeraingoak	133
Nafarroa	3
Atzerria	13

Iturria: Zeraingo Udala

4.3. DATU SOZIOEKONOMIKOAK

2016ko EUSTATen datu sozioekonomikoen arabera, herritarren %9,1 egun langabezia egoeran dagoena Zerainen. Gizonen artean, %8,5koa da; eta, emakumeen artean, %9,7koa. 2010arekin alderatuta, gora egin du langabetuen ehunekoak, %7koa baitzen data horretan.

4.4. EZAGUTZA DATUAK, LEHEN HIZKUNTZA ETA ETXEKO HIZKUNTZA

	1991	2001	2011	2016
EZAGUTZA	%97,7	%94	%90,9	%93
LEHEN HIZKUNTZA	%97,7	%92	%85,8	%87,35

ETXEKO HIZKUNTZA	%95	%88	%81,8	%87,35
------------------	-----	-----	-------	--------

	2016
KALE ERABILERA	%81,20
ADIN TALDEEN ARABERA	
Haurrak (2-14)	%88,8
Gazteak (15-24)	%52,50
Helduak (25-64)	%80,40
Adinekoak (64tik gora)	%78,50

4.5. EUSKARAREN INGURUKO EGITURAKETA

Zerain Udalderri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da, 2014az geroztik. Euskara Sustatzeko Erabilera plana du, baita udala euskalduntzeko plana ere. Euskara elkarterik ez dago bere horretan. Oa kultur elkarte dago, eta udaleko Kultura batzorde bezala funtzionatzen du. Bertatik antolatzen dira ekintza, kontzertu, hitzaldi eta abarrak.

Euskalduntze alfabetatzeari dagokionez, lau laguneko talde bat dago, oinarrizko mailan. Aurreko urteetan ez da sortu izan, eta Beasainera, Lazkaora edo Ordiziara joaten dira. Beka sistemak fakturaren %100a ordaintzen du, asistentzia kontuan izanda.

4.6. HEZKUNTZA

LH 2a bitartean ikas dezakete herriko eskolan. Ondoren, Segurara edo Lazkaora joaten dira. DBHko ikasketak Beasainen edo Lazkaon egiten dituzte. Herrian bertan, haurreskola, HH eta LH 1 eta 2 mailak dituzte. Guztiak D eredukoak dira.

4.7. EKIPAMENDUAK

Hauek dira herriguneko ekipamendu nagusiak: udaletxea, haurreskola eta herriko eskola, pilotalekua, herriko plaza, parkea eta turismoa bulegoa eta denda. Horrez gain, herrigunean bi taberna daude, eta inguruan bi sagardotegi, bi nekazaletxe eta aterpetxe bat.

5. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

5.1. GALDETEGI LABURRA

Alokairuko etxebizitzaren bidez, herriko eta eskualdeko gazteei aukera eman nahi zaie independizatzeko eta herriko bizitzaren parte hartzeko. Inguruko gazte eta adinekoentzat pentsatutako proiektua da, eta horregatik haien beharrak kontuan hartu dira etxebizitzak egiterakoan eta alokairuaren prezioa jartzerakoan. Beraz, pentsatzekoa da herri eta eskualde barruan sortuko dituela mugimenduak, eta, oro har, ez dela izango negatiboa hizkuntzaren garapenean. Dena den, etxebizitza horietako izen-ematea irekia da, adin-tarte horietan sartzen den edonork du aukera etxean sartzeko. Horregatik, proiektuaren eragina neurtzerakoan, kontuan hartu dira azken urteetako migrazio joerak.

AZALPENA	BAI/EZ	GALDERA
Etxebizitzak eraikiko dira	Bai	1. Proiektuak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...)
	Ez	2. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)
	Ez	3. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko hizkuntza politikan? (erakunde baten izaera aldatzen denean, eskola baten hizkuntza eredua aldatzen denean, zerbitzu baten publikazio edo pribatizazio kasuetan...)
Herri barruko biztanleen mugimenduak gertatuko direla aurreikusten da	Bai	4. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko hiztun komunitatearen harreman sareetan? (ludoteka berria egiten den kasuan, herrian parkerik

ez eta parke bat eraikitzen
den kasuan, eskola txiki bat irekitzen den
kasuan...)

BILAKAERA INDIZEA

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztarketatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzan izango den inpaktuari aurre egiteko. Bi indizeren batuketaren emaitza da: Hauskortasun Indizea eta Euskararen Proiekzio Indizea.

HAUSKORTASUN INDIZEA

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztarketatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzaren inpaktuari aurre egiteko; horregatik, euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizeari ez zaio punturik gehituko. Esaterako, herri baten euskararen ezagutzaren bilakaera -%8-koa bada, eta hauskortasun indizea 0, bukaerako emaitza -%8 izango da. Aitzitik, hauskortasun indizea txikia denean, inpaktuari aurre egiteko gaitasun handiagoa izango du (euskararen inguruko egitura baduelako, herri handi samarra delako, euskaldunen kopurua ez delako horren altua..). Adibidez, bilakaera -%7koa bada, eta hauskortasun indizea 2, emaitza -%5 izango da.

Azpeitiko Hauskortasun Indizea	
Udalerriko biztanle kopurua: 500 biztanletik behera	6
Euskaldunak: %90 eta %80 bitartean.	6
Lehen hizkuntza: %90-%80 bitartean.	5

Etxeko hizkuntza: %90-%80 bitartean.	5
Euskararen inguruko egituraketa: UEMA+ESEP.	0
Hauskortasun Indizea	13
HANDIA	

EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA

Arestian aipatu bezala, proiektuaren helburua da gazteen beraien kasara bizitzeko aukera bat ematea eta herrigunetik urrun bizi diren adinekoei herrian bizitzeko lekua eskaintzea. Horrek, lehen begiratuan, biztanleriaren hazkundera eragin txikia izango duela esan nahi du. Etxebizitza bakoitzera batez beste bi pertsona joango direla aurreikusi da. ELE tresnak proposatzen du, oro har, etxebizitzako hiru lagun kontatzea. Dena den, kasu honetan, bi hartu ditugu kontuan, etxeak txikian direlako.

Gaur egungo herritarren jatorriari begiratuta, estimatu da bizilagunetatik erdiak zeraindarrak izango direla, zortzi biztanle, hain zuzen; eta, gainontzekoak, beste zortzi biztanle, orain arteko migrazio mugimenduen arabera banatu dira. Kalkulatu da lau Goierrikoak izango direla; hiru Gipuzkoako gainontzeko eskualdetakoak eta bat Espainiakoa edo atzerriko beste herrialdeetakoak. Migrazio horien jatorriak aztertu eta gero, proiektzio indizea $-\%1,3$ koa izango dela estimatu da.

	Biztanlea k gaur egun	Gaur egun euskaldunak	Etxe berria k	Biztanle berriak	Biztanle berriekin guztira euskaldunak	Euskararen Proiektzio indizea
Alokairuko etxebizitzak	257	$\%93$	8	8	$\%91,7$	$-\%1,3$

5.2. BILAKAERA INDIZEA

Eragin linguistikoaren bilakaera indizea honela kalkulatzen da:

Euskararen proiektzio Indizea + Hlren eragina

□ Euskararen proiektzio Indizea

	Euskararen Proiektzio indizea
Alokairuko etxebizitzak	$-\%1,3$

Hlren eragina

HI	Hlren eragina
Hauskortasun handia 13	1



Erabat positiboa (10) eta oso larria (-10) artean dagoen eskalaren arabera, bi proiektuek nahikoa positiboa balorea daukate.

BI		
Alokairuko etxebizitzak	-%0,3	Garrantzia gutxiko eragin negatiboa

5.3. ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATEAREN EBALUAZIOA

Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko etxebizitza plan bakoitzeko galdetegi bat bete da. Ondoren agertzen den taulan horiek biak jasota daude.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATEAREN EBALUAZIOA: ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK

Alokairu sozialeko etxebizitzek garrantzia gutxiko eragin negatiboa izango dute Zeraingo hizkuntza egoeran. Egoera horrek ahalik eta kalte txikiena egiteko eta hizkuntza ohitura aldaketarik egon ez dadin, neurri zuzentzaileak ezarri beharko lirateke.

Hizkuntza paisaian eta zerbitzuen komunikazioan eragina oso baxua izango litzatekeela aurreikusi da eta, gainera, eragin hori eraikuntza garaian soilik nabarituko litzatekeela. Bukatzeko, zerbitzuen eskaintzan ez luke eraginik izango, izan ere, etxebizitzaren inguruan ez da aurreikusten zerbitzu berririk sortuko litzatekeenik.

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA SOZIALAK

Baliteke egitasmoak eragin nabarmena izatea (ona edo txarra)

	BAI/EZ	+/-	INTEN	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)				4	BAXUA
1.1 Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragina mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	BAI	-	BAXUA	0,5	Dagoeneko langile ugari joaten dira Zerainera bazkaltzera, baina aurreikusten da gehiago geldituko direla.

1.1.2. Eragina hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI		BAXUA	1	Zerain herri txikia da, beraz, udalerrri osoan nabarituko da.
1.2. Eragina proiektua egin eta gero					
1.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki	BAI	-	BAXUA	0,5	Aukera irekia da. Izena eman arte ezin da jakin nor etorriko den. Dena den, aurreikuten da gehienak herrikoak eta ingurukoak direla.
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	1	
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
1.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI		BAXUA	1	
2. Tokiko euskararen ezagutzan				11	BAXUA
2.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	BAI	-	BAXUA	0,5	Langileak egongo dira, eta obrak iraungo duen bitartean eragina izan dezakete.
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	1	Langileek litekeena da euskaraz ez jakitea. Baina eragina baxua izango dela aurreikusten da.
2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
2.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	BAXUA	2	Alokairu sozialeko etxebizitzetara eros ahalmen urriagoa dutenak joango direla kontutan hartuta, posible da bertaratuko direnak kanpotik bertara lanera etorritakoak izatea. Dena den, oro har herrikoak eta ingurukoak izango direla diote joerek.
2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	2	Udalerrria txikia denez, auzo horretan izaten duen eragina islatuko da herri osoan.
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
2.4. Eragina etengabekoa izango da					

3. Tokiko euskararen erabileran				25,5	ERTAINA
3.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	BAI	-	BAXUA	0,5	Etorriko diren langileak euskara ez ezagutzea litekeena da, eta horrek tokiko euskararen erabileran eragina izatea.
3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI		BAXUA	1	Etorriko diren langileak herriko zerbitzuak erabiliko dituzte eta euskararen erabileran eragina izan dezake.
3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
3.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	BAXUA	2	Izena ematen duten pertsonen arabera izango da eragin hori. Perfil euskalduna dute buruan proiektuaren sustatzaileak.
3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	3	Auzoan izango duen eraginaren antzekoa izango da herrian izango duena.
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
3.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	BAXUA	2	Kontuan izan behar da bost urteko epea dutela etxebizitzaren alokairuek, beraz, maizterrak alda daitezkeela aldian-aldian. Dena den, maizter horiek baldintza berak bete beharko dituzte.
4. Hizkuntza paisaian				1,5	BAXUA
4.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	BAI	-	BAXUA	0,5	Arkitektoa euskalduna da, eta guztia euskaraz egiten ari dira. Seinalazioa euskaraz egoteko ahalegin berezia egingo dute.
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	1	Udalerrri txikia denez, auzo bateko hizkuntz paisaiak eragina du udalerrri osoan.
4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
4.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko	EZ				Ez da aurreikusten hizkuntz paisaia aldatuko denik, eta etxebizitzek ez dute beste zerbitzurik izango

duena izango da bereziki?						baxuetan.
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	EZ					
4.3.Eragina noizbehinkakoa izango da	EZ					
4.4. Eragina etengabekoa izango da	EZ					
5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan				2		BAXUA
5.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?						
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ					
5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	1		Etxebizitzen promozioa egiterakoan eragina izan dezake. Dena den, hasteko, behintzat, HITZAREN eta euskarazko hedabideen bidez aurreikusten da egitea promozio lana.
5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?						
5.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	EZ					
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	EZ					
5.3.Eragina noizbehinkakoa izango da	BAI	-	BAXUA	1		Eraikuntza garaian nabarituko litzateke, baina eragina izatekoatan baxua izango litzatekeela aurreikusi da.
5.4. Eragina etengabekoa izango da						
6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan				0		
6.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?						
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ					

6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	EZ				
6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabaritu da?					
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	EZ				Ez da aurreikusten zerbitzu berririk, ez bada etxez etxeko gaueko zerbitzua behar duenen bat mugitzen bertara bizitzera. Gaur egun, ez dago behar hori duen herritarrik, eta kasu horretan egin beharko litzateke kontratazioa, eta euskaraz egingo litzateke.
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	EZ				
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da	EZ				
6.4. Eragina etengabekoa izango da	EZ				

Eragin Linguistikoaren Intentsitatea	44
GARRANTZIA GUTXIKOA	

Funtsezko alderdien azterketaren helburua proiektuak hizkuntzari lotutako alderdiak jasotzen dituen edo ez aztertzea da. Funtsezko alderdien azterketan, etxebizitza, espazio ireki eta hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak aztertzen dira jarraian.

Alokairuko etxebizitzak

Aurreikusi diren etxebizitzak herritarren beharretara egokitutakoak dira. Gazteen zein helduen beharrak asetzea du helburu, hain zuzen, proiektuak. Plazatik oso gertu eraikiko dira etxebizitza horiek, eta helburuetako bat da kaleko bizitzari indarra ematea. Bizilagunak elkarrekin harremanetan jartzeko aukera izango da, gainera. Hizkuntza irizpideei dagokionez, udalak pentsatu ditu hainbat neurri, eta horiek neurri zuzentzaileetan sartuko dira.

ETXEBIZITZA

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNZAN
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO		
1.	Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?	BAI			96 eta 250 euro arteko alokairuak dira.	Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
2.	Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?	BAI			Herriko plazaren ondoan dago kokatuta.	
3.	Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?	BAI			Bai, herriko plaza bera.	Komunitatearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du

4.	Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?	BAI			Hain zuzen, proiektuaren funtsetako bat da gazteen eta helduen arteko harremanak sustatzea.	
----	--	-----	--	--	---	--

DIMENTSIOA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
5.	Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean?	BAI				Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
6.	Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?			EZ DAGOKIO	Zeharka, promozioaren bide-eta, horretan saiatzekoak dira. Legez ezin den hori bere horretan egin.	
7.	Etxebizitzaren eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?		EZ		Ez, zortzi etxebizitza soilik dira eta epe batean eraikiko dira.	Jende etorrera asimilatzeke aukera lortzen da

LEKUKOTZEA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
8.	Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da?			EZ DAGOKIO		Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDEDEIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
9.	Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?	BAI			Plazaren ondoan daude kokatuta.	Gizarte kohesioa eta kultur biziarekin eragotzen du eta ondorioz, erabilera areagotzen du
10.	Oinezko sarea aurreikusi al dira?	BAI			Bai, badago oinezko sarea.	
11.	Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?	BAI			Bai, kontutan hartu da.	
12.	Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?	BAI			Plaza erabilera anitzeko gunea da.	Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesioa eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz
13.	Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?	BAI			Plaza da herritarren bilgunea, beraz, adin desberdinetako pertsonak nahasten dira bertan.	Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			ERAGINAK HIZKUNTZAN
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	
14.	Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira?	BAI			Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			ERAGINAK HIZKUNTZAN
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	
15.	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?		EZ		Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta
16.	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?	BAI			Gizarte kohesioa eta kultur bitzta areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
17.	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispertsatzea aurreikusten al da?				

HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
36.	Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? Hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak...	BAI			Guztia euskaraz egiteko erabakia hartuta dago, eta hizkuntz paisaia zaintzeko neurriak hartuko dira.	Egoera soziolinguistikoari kalterik egingo ez diola bermatzen da
37.	Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...			EZ DAGOKIO	Ez da aurreikusten halako aldaketarik egongo denik.	

NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
38	Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integrazioari begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...	BAI			Euskaraz ez dakiten pertsonak etorri gero, gainean egongo da udala eta euskara ikastera bideratzen saiatuko da. Matrikularen %100 ordaintzen zaie herrian erroldatutako ikasleei.	Proiektuaren/jardueraren eraginez sortutako kaltea murrizten da

6. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Zerainen 2019ko maiatzerako eraikiko diren alokairu sozialeko etxebizitzek euskararen bilakaeran garrantzia gutxiko eragin negatiboa izango dute.

Alokairua eskatzeko jarritako baldintzei begiratuta, aurreikus daiteke Zeraingo zein eskualdeko jendea izango dela eskatzaile nagusia. Gainontzeko kideen jatorria aurreikusteko, orain arteko migrazio mugimenduen datuak hartu dira kontutan. Proiekzioaren eta hauskortasunaren arteko eragiketa eginda, hizkuntzaren ezagutzaren bilakaera indizea -%0,3koa izango dela aurreikusten da. Hau da, esan bezala, garrantzia gutxiko eragin negatiboa. Beti ere, kontuan hartu behar da azken urteetako migrazio mugimenduetatik abiatuta eginiko kalkuloa dela hori. Beraz, aldaketak izan ditzake gora zein behera. Proiektuaren sustatzaileek bizilagun euskaldunak izan dituzte buruan proiektua pentsatu eta diseinatzerakoan, eta perfil horrekin lotzen dute etxebizitza eredu hori. Nahiz eta baldintzek libre uzten duten izena emateko hautua, eta, beraz, ezin da bazterketarik egin eskatzaileen artean.

Eragin linguistikoaren intentsitatea garrantzia gutxikoa izango litzateke (21,5). Aurrez aipatu bezala, eragina bizilagunen perfilaren arabera izango da, bahin obrak bukatuta. Obrak egiten ari diren bitartean, langileen ibilerak ere eragina izan dezake herriko bizitzan, baita hizkuntza paisaiak ere. Horregatik, horientzako neurriak jasoko dira. Udalak berak dagoeneko buruan ditu hizkuntza zaintzeko zenbait ekintza: promozioa egiteko bideak, obrak esleitzerakoan hizkuntza paisaia euskaraz egitea eskatzea... dena den, horiek guztiak jasoko ditugu neurri zuzentzaileen atalean.

NEURRI ZUZENTZAILE OROKORRAK

OBRA / ETXEBIZITZAK EGITERAKOAN

1. Hirigintzari/Etxegintzari lotutako lehiaketa publikoetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea.
2. Obra lizentzia ematerakoan hizkuntza irizpideak txertatzea.
3. Irizpideen artean izapideak udalarekin euskaraz egitea gehitzea.

4. Obra arduraduna euskalduna izatea zehaztea lehiaketa publikoetan.
5. Lehiaketan euskararen inguruko ziurtagiriren bat daukaten enpresak lehenestea.
6. Udalak sustatutako etxebizitzaren inguruko iragarkiak eskualdeko/herriko komunikabideetan jartzea.
7. Herriko tabernari eta ostatuetako langileekin hitz egitea, eta hizkuntza irizpideen berri ematea. Langileak hara doazenean, lehen hitza euskaraz egiten jarrai dezaten animatzea.

ETXEBIZITZAK EGIN OSTEAN

8. Udalak sustatutako etxebizitzetan hizkuntza paisaiaren inguruko irizpideak mantentzea bideratu. Sustapen pribatuko etxebizitzetara hizkuntza paisaiaren gomendio irizpideak helaraztea.
9. Finka-administratzaile edo etxepeko arduradun euskaldunak hartzea gomendatzea.
10. Etxebizitzan erroldatzen direnean udaleko euskara sustatzeko lan ildoetan sartzeko aukera eskaintzea, baita herri bizitzako hainbat egitasmoetara ere.
11. Etxebizitza eskuratuko dutenei euskaraz ikasteko laguntzen berri ematea.
12. Kanpotik datozen pertsonen kasuan Zerainen ezaugarrien berri ematea, baita herriak eskaintzen dituen aukera eta zerbitzuen berri ere. Horrekin abtera euskararen presentziaz eta arnasmuneen garrantziaz hitz egitea.

JARRAIPEN BATZORDEA

Neurri zuzentzaile hauei jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea osatu eta jarraipenerako sistema zehaztea komenigarria da. Jarraipen Batzorde hori honakoek osatuko dute: Udal ordezkaria eta UEMAko teknikaria.